

1998ko urtarrilaren 16. 72. Zenbakia. 150 pezeta.

Agiurri

Beterri-Aiztondoko Aldizkaria

ADUNA

- Herri lanak

ANDOAIN

- Eskola kiroleko begiraleen euskara maila ona
- Mikel Arregiren kotxea erre dute

BILLABONA

- Axier Vitoriarekin solasean

ZIZURKIL

- Lurdes Gorostidi munduko zazpigarrena

ELKARRIZKETA

- Amaia Gomendio Arantxa Arzallus

KULTURA

- «Julian Lizardi martiri asteasuarra» liburua kalean
- «Xudurluze», Larramendi Bazkunaren berripapera



Bigarren aukera

SAGARDOTEGI iako

LEHEN PAGAMUÑO

SAGARDOTEGIA
JATETXEA

URRITZA


7. Area - Poligono Industrial (Behe solairua)
20.150 ADUNA ☎ 69 33 96

150 pertsonentzako lekua. Sagardoa beraiek egiten dute. Sagardo garaia amaitzen denean Erretegi bezala jarraitzen du (bataioak, jaunartzeak...)

Berezitasunak:

- Makailoa piperrekin eta pil-pil erara.

ZABALA sagardotegia



☎ 69 07 74

ADUNA

- Urtarrilaren 2tik Maiatzaren 10a arte zabalik.
- Bertan egindako sagardoa.
- 150 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.
- Gauero zabalik, igandeak barne, eta igande eguerdietan enkarguz.
- Berezitasunak:
 - Makailua
 - Txuleta ederrak
 - Sagardoa



BENTA SAGARDOTEGIA



Sorabilla - Adunako errepidea

☎ 69 30 94



- 150 pertsonentzako lekua (aparkalekua)
- Sagardo garaian sagardotegi gisa irekitzen dugu eta urtean zehar jatetxe moduan.
- Berezitasunak:
 - Gaztatarta eta etxean egindako menbriloa.

1. AURKIBIDEA.
AIURRITARRAK
Txomin Garmendia
"Egutegi bat dala ta".
2. GALDEZKA.
Eta zuk donatuko al duzu organorik?
3. ADUNA.
Herri lanak.
- 4-5-6. ANDOAIN.
Mikel Arregiren autoa erre egin dute.
Eskola Kiroleko begiraleek euskara maila ona dute.
Jubilatuentzat ilepainez zerbitzua.
7. ASTEASU.
Plaza hornitzeko lanak amaitzeaz.
- 8-9. BILLABONA.
Argi transformadoreari sua.
Axier Vitoria musikaria.
10. ZIZURKIL.
Lurdes Gorostidi munduko zazpigarrena
11. ENPRESA.
«Zubeldia» arrain eta mariskoak.
- 12-13. ERREPORTAIA.
Bigarren aukera.
- 14-15. ELKARRIZKETA.
Amaia Gomendio eta Arantxa Arzallus
- 16-17. KULTURA.
Julian Lizardi Martiri asteasuarra.
Xudurluze, Larramendi Bazkunaren berriemaile.
18. ERRETRATU ZAHARRA
19. BETERRIKO LIBURUA/LEHIAKETA
20. AGENDA

EGUTEGI BAT DALA TA



TXOMIN
GARMENDIA

Urtearen bukaeran eta aseran izaten degu egutegitik aukera, Urte Berri zoriontsu bat danak eskeintzen digutela. Zabalkunde edo propagandak ere alako indarra artu digu mundu berri ontan eta ori, egutegitara ere bapo sartu zaigu eta aurrera.

Garai bateko egutegi geienak, Jესusen Biotzaren eta santuen irudiakin izango genituz; orain ez degu orrelakorik; orain, emakume ederrak billutsik edo erdibillutsik ikusi litezke nunnaitan. Baiña, santu klase oriekin ere aspertzen ez al goaz? Gauza guztiak beren neurrian dira onak eta orretan ibiltzen gera gaizki.

Borobiltzera nijoan gaiak ez du zer ikusirik, bi santu klase oriekin, Zizurkil'ko Udalak sei bertsolari izan ziran argazkiakin aurtengo urterako argitaratu dunarekin baizik. Bidezkoa dan bezala, egutegi orrek, bertako seme izan zen Pedro Mari Otaño'rena dakar danan buru eta barrenan beste bostarenak. Ara nortzuk: Lazkao Txiki, Txirrita, Uztapide, Xenpelar eta Xalbador. Danak, bertsolari-munduan goieneko mailla iritxi zutenak zalantzarik gabe.

Zizurkil'ko Udalak, horondaterik onenez egingo zun egiteko ori; barkatu dezaidatela pentsamolde ori izan zutenak, baiña Pello Errota bat or ez agertzea usunc ikusgarria juzgatzen det. Astiasu'n jaio, bizi eta 1919'garren urtean il zan errotaria izango da seguruenik beste seiak baino geiago Zizurkil'en ibilitako auzoa zalako, alako ogibidea zulako eta bertso bidez berriz, zer esanik ez. Ala ere...


Gaiñera, Pello Errota'ren ondorengo edo kastako pranko bizi da Zizurkil'en; arrazoi askorengatik bear zun sail orretan Pello Errota'k; bestetik, Txirrita eta Pello Errota banatu eziñak dirala esango nuke.

Zazpigarren argazkiarentzako lekuri ez bazan, Xenpelar'en edo Xalbador'en lekuan bear zun Astiasu'ko errotaria; Pello Errota'ren liburuan ikusten degunez, berak kantatutako bertso batean, Karidadeko Bentan bildu ziran sei bertsolari aietan an zan Xenpelar; baiña Zizurkil'en asko kantatu gabea izango zan, ogeita amalu urte zitula il zalarik, eta Errenteri'koa. Gaur bezelako erreztasunik ez bai zan ibiltzeko.

Xalbador'ek iñoiz kantatu zun oroitzapenik ez det berriz; agian iritxia izan zitekean, baiña oso gutxi. Norbaitek esan lezake, Zizurkil'en izandako bertsolari on askoak gelditu dirala argitaratu gabe. Bai noski, adibidez, Joxe Benardo eta Juan Joxe Ugarte, baiña Pello Errota'k aiñako izenik artu ga-beak biak ere. Esan det.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiertza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernaras **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



ETA ZURI, ZER IRUDITZEN ZAIZU ORGANOAK TRAS- PLANTATZEA? EMANGO AL ZENUKE ZU- RE ORGANORIK?



TXARO OTAEGI
ETXEKOANDREA. ASTEASU.

Ongi iruditzen zait, baina organoak emate hori ez daukat oso argi. Beldur piska bat ematen dit donante izateak, entzun ditudan hainbat kontu direla eta. Errespetu piska bat ematen duen erabakia da hori.

RAMON ITURRIZAR
JUBILATUA. BILLABONA.

Cureak erdoila hartuta daude, guk ez daukagu zer eskainirik inorri. Baina organoak osasuntsu dituztenek hori egiteko erabakia hartzea ondo iruditzen zait.



IMANOL ARRUTI
IKASLEA. ZIZURKIL.

Ondo. Jendea beharrez badago ondo dago organoak aprobetxatzea. Nik emango nituzke, gainera, familian izan dugu horrelako arazo bat eta kontu hau gertutik ezagutzeko aukera izan dut.

ARANTXA OLASAGASTI
ETXEKOANDREA. ADUNA.

Beste bati mesedea egiteko ondo iruditzen zait. Nik ez dut inoiz planteatu organoak ematea, baina zoragarria iruditzen zait beste batzuek organoak donatzea; beste bati bizia ematea, alegia.



ARANTXA AZURMENDI
ETXEKOANDREA. ANDOAIN.

Oso ondo iruditzen zait organoak transplantatzea. Beren organoak dohaintza erabakitzen dutenak asko errespetatzen ditut baina nik nahiago dut ni hil ondoren nire organo guztiekin lurperatzea. Beste auzora osorik joan nahiko nuke!

MARIA KARMEN ORDAD
ETXEKOANDREA. ANDOAIN.

Ondo iruditzen zait organoak ematea eta txalogarria da oso erabaki hori. Nik ordea, osasun arazoengatik ez dakit zein balio izan dezaketen nire organoek, baina osasuntsu dagoen pertsonak bere organoak ematea mirezgarria iruditzen zait.



OHARRAK!

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA

Hasi berri dugun urteko harpidetza kuota (2.000 pta.) otsailaren hasieran kobratuko dizuegula gogorarazten dizuegu.

Dirua gure kontu korrontean sartzeko konpromezua hartu zenutenok otsailaren lehenengo astean egin behar duzue zuen diru sarrera honako kontu korrontee-tako batean:

Euskadiko Kutxa 3035.0026.22.0260701686

Gipuzkoako Kutxa 2101.0095.51.0010369411

EGUTEGIKO AKATSAK ZUZENTZEN

Oparitu dizuegun egutegian erreperatuko zenutenez, Iraileko Arantzazuko Amaren omenezko jaiak Larraulgoak direla diogu Zizurkil Behekoak direla jarri beharrean. Bestalde, Amasako jaiak, San Martin sainduaren omenez azaroan ospatzen dituztenak, ez dira ageri egutegian. Barkatu hutsegiteak eta... Urte berri on!

HERRI LANAK

U rte l'erdian egin beharreko herri lan guztiak erabaki eta lanak egiteko arduradunak aukeratu ditu Adunako Udalak. Guztira, 100 milioitik gora gastatuko du lan horiek egiten eta Gipuzkoako Diputazioaren eta Estatuaren dirulaguntzak jasoko ditu lan horietako batzuk ordaintzeko.



Udaletxeko bigarren solairuan ezarriko dute liburutegia.

ra eta hezurak gordetzeko nitxoak ere egingo dituzte.

KULTUR ETXEA ETA ATERPETXEA ABIAN

Kultur Etxea egiteko lanen bigarren faseari ekin diote udaletxeko goiko solairuan. Liburutegia eta ekintza ezberdinak garatzeko bi gela handi egingo dituzte bertan. Kul-

tur Etxearen lehen fasea egungo kultur aretoa egitea izan zen. Maiatzerako lanak amaituko dituztela uste dute.

Bestalde, aterpetxea egiteko lanak berehala hastea espero dute, 1999. urteko maiatzerako amaitu behar baitituzte. Aterpetxea egun apaiz etxea den lekuan egingo dute, eta gaur egungo herri ostalua, hots, taberna eta jatetxea, bertan ezarriko dituzte. Horrez gain, oinarritzako gauzak salgai izango dituen denda txiki bat izango da aurrerantzean bertan. Aterpetxeak 40 lagunetzako lekua izango du eta elbarrientzako egokitua izango da.

Apaiz etxeko bi gela, garajea eta etxebizitza herriz, elizarentzako izango dira, bere beharretarako.

UHOLDEEN KALTEAK KONPONTZEN

lazko maiatzean izan ziren uholdeek eragindako kalteak konpontzen hasi dira dagoeneko. Uholdeak gertatu zirenean konponketa batzuk egin zituzten arren, konponketa nagusienak ari dira egiten egunotan eta hilaren amaierarako lan guztiak bukatuta izango dira. Lardi auzoko bidean eta Ibaiondo industriagunean ari dira lanak egiten. Uholdeen kalteak konpontzeko lanak, erakuntza publiko kaltetuak konpontzeko lanak alegia, Estatuaren, Gipuzkoako Diputazioaren eta Udalaren artean ordainduko dituzte; gastuen %50a, %25a eta %25a ordainduko dute hurrenez hurren aipaturi-

ko erakundeek. Horrez gain, baserri bideak eta mendi bideak ere kaltetu zituen jazko uholdeak baina kalte horien konponketaren ardura Mendi Nekazaritzak hartu du. Lanak bere ardurapean burutuko dira eta Diputazioak eta Estatuak ordainduko dituzte. Guztira 24 milioi inguru gastatuko da konpoketa lan horietan.

HILERRIA TXUKUNTZEN

Era berean, hil honen amaierarako bukatuko dituzte hilerria konpontzeko lanak. Oinezkoentzako bidea asfaltatzen ari dira egunotan, txukunketa lan orokorrak egiteaz gain. Bestalde, hilobi berriak egiten ari di-

Aiarri
EGIN ZAITEZ HARPIDE!
 ☎.: 300732
 FAXA: 300731
 DR. HUIZI, 15 1. ESK.

Ormendik
Kirolak

KIROLA EGITEKO ETA
 ZURE ATSEDENALDIRAKO

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF: 59 18 06 ANDOAIN



Leire Tapia

Herriko taldeentzako dirulaguntzak

Urtero bezalaxe, gizartearen zerbitzuan lan egiten duten taldeei emateko 750.000 pezetatako dirulaguntzak onartu dira. Gauzak horrela, 1.997 urteko dirulaguntza Caritasi, Munillari, Odol emaleei, Osasunaren Pastoralari, Atzegiri eta Proyecto Hombre taldeari eman zaie. Horrez gain, Gurutze Gorriak urtean zehar egiten duen lanarengatik dirulaguntza jasoko du.

Irunberriko zozketa

Irunberri elkarteak urtarrilaren 10rako ateratako errifaren zenbaki saridunak jakitera eman dizkigute; hauexek dira:


25.208 zenbakidunak moto bat izango du sarizat; 75.758 zenbakidunak telebista eta bideoa; 46.376 zenbakidunak mendiko ekipoa; eta azkenik, 77.303 zenbakidunari sei pertsonentzako marisko jana ego kitu zaio.

Mikel Arregiren kotxea erre dute

Andoaingo EAJ-PNVeko zinegotzia den Mikel Arregiren kotxea erre dute. Urtarrilaren 11an goizaldeko laurak eta berrogeita hamarretan, Ambrosia Olabide egoitzaren aurrean aparkatuta zegoen Mikel Arregiren kotxeari su eman zioten zenbait pertsonak. Estoldaren tapa batekin kotxearen kristalak apurtu eta likido sukoi batekin busti ondoren, kotxeak su hartu zuen. Suaren ondorioz, ondoan zeuden beste bi kotxeek ere kalteak izan dituzte.

ANDOAINGO HERRIA
BIZIRIK

Andoainen buelta bat ematera irten eta hainbat berrikuntzekin aurkitu naiz. Galardi kaletik abiatu eta Plazaola kalera iristean, hara non eskabadora bat ikusten dudan lurra mugitzen. Nere kaxa pentsatu nuen "bazen ordua hemengo etxeak egiten hasteko". Lokatz eta langile artetik beheruntz jarraitu nuen. Kale Nagusitik pasatzean konturatu nintzen Pablo nere lagunaren etxe eta denda jada ez zeudela. Adiskide batekin aurkitu nintzen eta nere ibilbidean ikusitako gauzez hizketan hasi ginen. Hauetaz gain ere, Etxeberrietan etxeak egitera omen doaz, eta kiroldegiko lanak ere aurrera doaz. Andoainek orainarte "hilik" zegoen herria zirudien ingurukoekin konparatuz, eta berpizten hasi dela dirudi. Basteroko proiektua ere hor dago. Pasealeku eta parkeci dago kienez, hilerrri zaharrean parkea egiteko proiektua onartu zuen Udalak. Elizondo plazan ere berrikuntzak egongo dira. Hauetaz guztietaz gain, beste nobedade batzuk ere aurkituko ditugu. Beraz, horrenbeste proiekturen aurrean andoaindarrok emaitzak ikusteko desioarekin gaude.



XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta. 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

UNAI
OINETAKOAK

Kale Nagusia, 12
BILABONA
☎ 69 12 61

UMF FIA
GAZTEENTZAKO
OINETAKOAK

ANDOAINGO ESKOLA-KIROLEKO BEGIRALEEK EUSKARA MAILA ONA DUTE

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDI-KO EUSKAREN NORMAL-KUNTZARAKO ZUZENDARITZAK GIPUZKOAKO, ETA BERRAZ, BURUNTZALDEA BAILARAKO (ANDOAIN, HERNANI, LASARTE, URNIETA ETA USURBILGO) ESKOLA-KIROLEKO HIZKUNTZ DIAGNOSIA BURUTU DU. SIADECO IKERKETA ELKARTEAK BURUTURIKO LAN HORRETAN, GIPUZKOAKO 186 IKASTETXEETAKO, HAU DA, 2.370 KIROL TALDEETAKO 29.412 GAZTEEK OSATU DUTE AZTERKETA EREMUA. AZTERTU DIREN KIROL TALDEAK FUTBOL, SASKIBALOI, ARETO FUTBOL, MULTIKIROL, ESKUBALOI, PILOTA, ATLETISMO, BOLEIBOL, IGERIKETA, GIMNASIA ETA MENDIAN ARITZEN DIREN TALDEAK DIRA.



HAURREN IKASTEREDUA

Haurren ikasteredua kontutan hartzen badugu Buruntzaldeko kirol taldeen %76 D ikastereduko haurrek osatzen dute; Gipuzkoan berriz, haurren %62ak ikasten du D erduan. Andoain herriari dagokionez, Buruntzaldeko beste herrietan haur gehiago dira euskaraz ikasten dutenak hemen baino. Gauzak horrela, Buruntzaldeko eskola-kiroleko jarduerak euskaraz egin daitezke inongo arazorik gabe.

MONITORE ETA BEGIRALEAK

Buruntzaldeko monitorean hizkuntz gaitasuna Gipuzkoakoaren gainetik dago: monitorean %71a euskaraz hitz egiteko gai da. Andoaingo monitorean %60ak euskaraz ondo hitz egiten duen bitartean, zerrendan hurrengo den herriko. Lasarteko, monitorean %39,5ak baino ez du euskaraz ondo hitz egiten. Horrezaz gain, kirol-koordinatzaileen hizkuntz gaitasuna begiraleena baino altuagoa da, eta koordinatzaile horien hizkuntz gaitasuna

eta kirol titulazioa lotuta daude: kirol hizkuntza euskara erabiltzen dutenen gehiengoa, %68a, irakasle birtziklatu, espezializatu eta IVE-Feko tituludunek osatzen dute.

MONITORE ETA HAURREN ARTEKO HIZKUNTZAREN ERABILERA

Buruntzaldeko monitore eta haurren arteko harremanen %62a euskaraz izaten da;

erdara erabiltzen du %26ak eta %10aren kasuan, begiraleek euskara eta haurrek erdara erabiltzen dute. Gipuzkoako haurren arteko harremanetan berriz, euskararen erabilera altuagoa da monitorean hizkuntz gaitasuna altuagoa den heinean.

Kirol modalitateak alderatuz gero, pilota eta mendiarekin loturiko kirol jardueretan euskararen presentzia altua da oso.

AZTERKETAREN LEHENTASUNAK ETA ONDORIOAK

Kirol monitore euskaldun gehiago eta hobeak edukitzea eta euskarazko kirol materiala sortzea dira, besteak beste, azterketa horren helburu nagusiak. Hori dela eta, Andoaingo herria lan horretan aurreratua doa besteekiko. Azken urteotan, monitorean kirol formazioa euskaraz eskaintzeko lanetan dihardu. Euskara eta kirol teknikariak harremanetan jarri eta 1.998. urterako lan egitasmoa landu dute.

VIDEO CLUB

CLUB de CAMBIO AMETS VIDEO CLUB

- Bideo zintak alokatzen dira
- CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba.
- TV, Bideo, Hi-Fi, CAR AUDIO... konpontzen ditugu.

Txermin kalea, 21 behea BILLABONA

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50


BILLABONA

Jose Ramon

TABERNA

PINTXO EDERRAK!!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN



AZPEITIKO ANTZERKI TOPAKETAN BIGARREN SARIA

Beste talde batekin erdibanatuko du bigarren saria Andoaingo Aita Manuel Larramendi ikastolak

Azken zazpi urteetan hartu du parte aipaturiko topaketan Andoaingo Aita Manuel Larramendi ikastolak eta urte batean izan ezik, beti lortu du sariren bat. Aurten ere, I.E.E.-ko 2. mailako ikasle diren Naroa Zubillagak, Kristina Pagolak, Garikoitz Asensiok eta Iker Iriondok osaturiko lau-koteak bigarren saria lortu du.

Nolatan osatu duzue taldea? Zein motatako lehiaketa izan da?

Marian Lekuona irakaslearen aholkuarekin bi taldek hartu dugu parte aurtengo lehiaketan. Aurtengo Antzerki Topaketa Antxietaren obra eta bizitzari buruzkoa zen eta hori lantzeko eskola orduetan nahiz etxean jardun dugu lanean. Hasieran eta finalean sei galdera erantzun behar izan ditugu. Lehenengo fasean berdinketa izan zenez, finalera hiru talde iritsi ginen eta bigarren saria erdibanatu egin behar izan dugu. Horregatik, aurtengo saria 25.000 pezeta-koa izango da eta Pariseko bidaiarako izango da.

Nolako esperientzia izan da?


Hasierako galderak errezak iruditu zitzaizkigun, finaleko galderak berriz, zailagoak izan ziren. Horrezaz gain, lehiaketa egunak azterketa egunekin batera izan dira eta egun gogorrak izan arren, lortu dugun bigarren sariarekin gustura gaude oso.



Ikastolako ikasleak lehiaketan parte hartzen

JUBILATU ETA PENSIONISTENTZAT ILEAPAINDEGI ZERBITZUA

ANDOAINGO ANBROSIA OLABIDE GIZARTE ZERBITZUETAKO EGOITZAN ZABALDU DUTE ILEAPAINDEGI ZERBITZU BERRIA. HURRENGO LAU URTEETAN LEIRE PEREZ HOGEITA BI URTEKO ANDOAINDARRA IZANGO DA ILEAPAINDEGI ZERBITZUAN LAN EGINGO DUENA. BERE LANAREN BERRI IZATEKO ETA ILEAPAINDEGI BERRIA EZAGUTZEKO LEIREKIN IZAN GARA.



Nolatan hartu duzu ileapaindegia?

Udalak ileapaindegi zerbitzurako pertsona bat behar zuela iragarri zuen. Eskakizunen artean cuskaraz jakitea garrantzitsua zen eta zenbait pertsonen artean ni aukeratu ninduten. Hori dela eta, gela eta ileapaindegi zerbitzurako beharrezkoak diren aulki, ispilu, lehorgailu eta gainerakoak Udalak jarri ditu. Laka, txanpuak eta horrelakoak berriz, nik.

Ez da ileapaindegian lan egiten duzun lehenengo aldia, ezta?

Ez. Ikasketak bukatu ondoren egin izan dut lan: Lasarteko eta Donostiako ileapaindegian eta Andoaingo akademian ere ibili naiz lan horretan. Orain berriz, nire ardurapean lan egiten dudun lehenengo aldia izan arren, oso gustura nago: uste nuena baino hobeto ari naiz. Hasieran gogorragoa izango zela espero nuen, bezeroak eta beraien nahiak ez ditut oraindik ezagutzen eta beraiek ni ere ez naute ezagutzen, baina oraingoz ondo moldatzen ari naiz.

Zein dira zure bezeroak?

Jubilatu eta pensionistentzako zerbitzua da hau. Gizonezko nahiz emakumezkoek zabaldua dago baina normalean emakumezkoak maizago etortzen dira. Gizonezkoak ilea moztu eta denbora batean ez dute beste ezer egiteko beharrik izaten.

Zein ordutegi duzu?

Udalak ezarritakoaren arabera, astegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara dago zabalik. Larunbatetan 10:00etatik 14:00etara. Hala ere, lan asko badago ordu gehiago egongo naiz. Bertara datozen bezeroak 300746 telefonora deituz edota egoitza pasata ileapaindegirako eguna eta ordua hartzen dute. Aldez aurretik hartu behar da txanda.

PLAZA HORNITZEKO LANAK AMAITZEAR

Bernardo Atxaga- ren omenezko afaria

Aitzondo elkarteak Bernardo Atxaga idazle asteasuarra omenentzeko antolatutako aforaia aparta eta ezinhobea izan omen zen. Elkartea bete jende izan zen joan den hileko hogeigarrean, eta lagunarte ederrean afaldu zuten elkarteko bazkide eta herritar gehiagok. Afal ostean Atxagak hitz batzuk esan zituen, eta ondoren, herritarrek izan zuten idazleari galderak egiteko aukera. Goizeko ordubiak arte aritu ziren berriketan. Aipatzekoa da Atxagaren argazki bat jarri zutela elkartean idazlearen omenez, eta gainera, Errekabailarako egurrekin eginitako makila opari zioten omenduari.

Herriko plaza txukun-txukun jartzeko lanak egiten ari dira udal langileak egunotan. Plazaren buelta guztian belarra jarriko dute, lorategi bat, hain zuzen. Barruan berriz, hau da, lorategiak biltzen duen tokian asfalto gorria botako dute: leku hori plaza dela bereizteko, alegia. Bertan, sei zuhaitz (egun lau besterik ez daude), sastraka batzuk eta iturri bat jarriko dituzte. Egungo eskulturak, Pello Errota eta Eluterio Tapiarenak, ez dituzte lekuz aldatuko baina lorategi barruan izango dira aurrerantzean. Eserlekuak berriz, barnizatu eta txukundu ondoren, plazaren izkinetan jarriko dituzte: orain arte zeuden lekuetan, gutxi gora behera. Plazara kotxe-rik ez sartzeko berriz, bertara sartzeko dauden bi sarreretan piboteak jarriko dituzte. Horrezaz gain, lorategiaren buelta guztian, hots, errepide aldera gelditzen den zatian galtzadarria jarri-

ko dute kotxeek beren muturra lorategira ez sartzeko. Baina plazara sartu edo bertatik irteteko pasabidea egingo dute, oinezkoentzat noski.


Lan horiek egiten ari dira egunotan, eta guztia behar bezala jartzeko farolak lekuz aldatu behar izan dituzte. Behin belarra jarri eta lorazainak sastrakak jarri ondoren, bukatutzat emango dituzte lanak. Urtarrilaren amaierarako lan guztiak amaituko dituztela uste dute.

ASFALTATZE LAN GEHIAGO

Egungo aparkalekua asfaltatu egingo dute plaza berritzearekin batera. Asfalto beltzez estaliko dute lurra eta zuriz margotuko dituzte kotxeak aparkatzeko tokiak: 40 kotxe aparkatzeko lekua egingo dute.

Bestalde, Elizmendiko Agerrebekoa baserritik Ikiliñe baserrira doan bidea ere asfaltatuko dute gutxian.

- 1.- Zuhaitzak
- 2.- Iturria
- 3.- Sastrakak
- 4.- Eserlekuak
- 5.- Oinezkoen pasabideak
- 6.- Estatuak
- 7.- Piboteak
- 8.- Galtzadarria



Argitarapen honen edizioko laguntzaila:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

SOTO

elektrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g. BILLABONA
☎ 69 11 73



**ARGI
TRANSFORMADOREA
ERRE DUTE**

Errege egunaren bezperan Amasako argi transformadoreari su eman zion norbaitek. Iluntzeko 20:25etan izan zen sutea eta ordubete baino gehiagoz argindarrik gabe geratu ziren Billabona, Zizurkil, Alkiza, Irura eta Anoetako bizilagunak. Sutea eragiteko zuziak erabili zituztela adierazi du Iberdrolak. Transformadorean eragindako kalteak nahikoa azkar konpondu zituzten eta ordubete inguruan argindarra berreskuratzea lortu zuten.

**GAITZESPENAK EGITEAZ
ASPERTUTA**

Joxi Mujika alkateak adierazi digunez aspertuta daude horrelako gertakizunak gaitzesteaz, "jada ez da ezer aurreratzen gaitzespenak egitearekin". Transformadorearen aurkako erasoak Erregeen desfilea argindarrik gabe utzi zuela eta beraz, herritar ugari biltzen duen ospakizuna zapuztu zuela dio alkateak. Erasoaren planifikatuta zegoela adierazi digu, erasoaren aurretik Espainiako errege eta errege egunaren ospakizunaren aurkako hainbat agiri agertu baitziren herrian. Alkateak helburu horiek lortzeko beste bide batzuk badaudela gaineratu du.

**IÑIGO GURIDIREN
ERRUGABETASUNAREN ALDE**



Iñigo Guridiren errugabetasuna eta bere askatasuna aldarrikatzeko sortu den herri ekimenak sinadura bilketa berri bati ekin dio. Oraingoan herritarren sinadurak jasoko dituzte soilik, eta behin sinadura guztiak bilduta mozioa aurkeztuko dute udaltxean. Mozioaren helburua Billabonako Udalak Guridi atxilotu zutenean hartu zuen erabakia zuzentzea da. Izan ere, orduan Amnistiaren Aldeko Batzordeak Iñigoren askatasuna eskatu zuten mozioa atzera hots

zuen, eta orain, Udalak Iñigoren errugabetasuna onartu eta bere askatasuna eskatzea nahi dute.

Horrezaz gain, Iñigori eguneko elkarriketa biltzen duen aldizkari bat, eta bere argazkia duen kamiseta eta pegatinak argitaratu dituzte. Asteazkene-ro, arratsaldeko zazpi terdian hasita, Kultur Etxean biltzen dira herri ekimeneko kideak eta gutxian Iñigoren omenezko egun bat antolatuko dute.

**JOXE MARI OLARRA
GOSE GREBAN**

Martuteneko gartzelan gose greba txandakatu hasi dute euskal preso guztiak Euskal Herriratzera eskatzeko. Joxe Mari Olarra gartzela horretan dago preso eta ondorioz gose greban dago. Helburu berarekin hasi dute Cervasio Agirre eta Iñaki de Juana Chaos preso billabonatarrek txapela delakoa. Ondorioz, egun osoa zeldan pasatzen dute eta bisitak edota telefono deiak egiteko soilik irteten dira kanpora.

ILEAPAINDEGIA
GARBINE
Bulandegi Kalea 13 3. esk.
☎ 69 05 99 ZIZURKIL

**FRANCISCO
MENDIKUTE**
Harategia
Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

ORTE
CENTRO OPTICO
OPTIKO - OPTOMETRISTAK
**ESKIATZEKO
BETAURREKOETAN
AUKERA ZABALA**
Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17

**AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA**
IRAOLA
ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK
Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA

AXIER VITORIA: “HEMEN MUSIKA IRAKASTEKO MODUA ALDATU BEHARRA DAGO”

INGALATERRAKO OXTED (SURREY) HERRIAN DAGO AXIER VITORIA GAZTEA INGELESA IKASTEN ETA LANEAN. ERESARGI TXIKIKO ZUZENDARIA DEN BILLABONATAR HONEK EZ DU GELDIRIK EGOTEKO DENBORARIK HARTZEN. IZAN ERE, ETA INGELESA IKASTEKO ASMO-TAN JOAN ZEN ARREN, HIZKUNTZA IKASTEAREKIN BATERA BERTAKO ESKOLA BATEAN MUSIKAKO KLASEAK EMATEN ARI DA. GABONETAKO OPORRETAN BERAREKIN EGOTEKO AUKERA IZAN DUGU.

Zer ari zara egiten Ingalaterran?

Behin ikasketak amaituta, irailean, ingelesa ikasteke asmoarekin joan nintzen Oxted herrira, bertako familia batean ikasturte bat pasatzera. Bizi naizen etxean lau ume bizi dira eta etxean bertan pianoa dute. Pianoa jotzen hasi nintzen etxean, eta kasualitatez, ume horien musika irakasleak eskola utzi zuen. Umeen gurasoek, nik musika banekiela ikusirik, ni musika irakasle berria izan nintekeela proposatu zioten eskolari. Gauzak horrela, urrian hasi nintzen klaseak ematen eskolan.

Zer irakasten diezu bertako haurrei? Zer

ikasten ari zara trukean?

Kodaly izena duen sistema bitartez irakasten diet musika haurrei, musika korala delako sistemaren bitartez. Beraz, koruko kantak abestuz erritmoa, doinua, mugimendua eta musikarekin loturik dauden hainbat gauza irakasten diet.

Trukean, musika ingelesez nola interpretatzen den ikasi dut nik, eta haurrekin lanean aritzeak ingelesa beldurrik gabe praktikatzera bultzatzen nau. Gainera, koro txiki bat ere osatuko dugu.

Zein desberdintasun dago bango irakaskuntza eta bemenengo musika irakasteke moduaren artean?

Hemen musika bigarren mailako ikasgaia da. Hango ikasgelan, nik irakasten dudana gelan, piano bat dago, hemen ordea, eskola gutxitan dago antzekorik. Musikari garrantzi gehiago ematen diote, eta ondorioz, oso ongi abesten duten haur taldeak edo musika taldeak daude. Musikaren historia baino musika ulertzen irakatsi behar zaie haurrei, musika sentitzen.

Zein asmo dituzu aurrera begira bai Ingalaterran bai Billabonan?



Oraingoz eskolan jarraituko dut, ekainera arte edo. Halere, nik ingeneritza ikasi dut eta posible izanez gero bertako enpresa batean nire lanbidearekin lotuta dagoen zerbait egin nahiko nuke. Udararako, ordea, Billabonara bueltatuko naiz, nahikoa ingeles jakingo dut ordurako! Behin hona etorrita lan bila hasi beharko dut, eta nola ez, Eresargi Txikiko zuzendari lanetan jarrituko dut.

Ngeltseritza
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)



ALOTZ
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - % 59 07 06
ANDOAIN

Loitzo

Etxeko Osagaiak

LANPARAK ALTZARIAK
KOLTZOIAK OPARIAK

Errota kalea, - 3 69 21 35 BILLABONA

LURDES GOROSTIDI, MUNDUKO ZAZPIGARRENA

HEMEZORTZI URTEKO LURDES GOROSTIDI ZIZURKILDARRA APARTEKO KIROLARIA DA. ESAN BEHARRIK EZ DAGO HALTEROFILIAN JARDUTEN DUELA ETA KIROL HORRETAN LORTURIKO EMAITZA ONEN ONDORIOZ JASOTAKO DIRULAGUNTZAREKIN MADRILGO ESKOLA BATEAN ARI DA KIROL HORRETAN TREBATZEN, ETA BIEN BITARTEAN, IKASKETAK BURUTZEN. GABONAK ETXEAN IGARO ONDOREN MADRILERA BUELTATU DA GUTXIAN PARTE HARTU BEHAR DUEN TXAPELKETARAKO PRESTATZERA. TELEFONOZ DEITU DIOGU LORTU BERRI DITUEN GARAIENETAZ GALDETZEKO ETA ETORKIZUNERAKO DITUEN ASMOEN BERRI IZATEKO.


Garaipen berri bat lortu duzu Tailandian jokatu den mundu mailako txapelketan, ezta?

Bai, lehenengo zortzien artean gelditzea zen helburua eta zazpigarrena gelditu naiz. Nahiz eta hemezortzi urte ditudan eta berez junior mailakoa izan, hau da, hogeitaz beherako kirolarien mailakoa izan, absolutu mailako txapelketa izan zen Tailandiakoa.

Selekzio espainiarraren izenean hartu zenuen parte txapelketan. Zenbat euskaldun joan zireten aipaturiko txapelketara?
Sei neska eta bi mutil joan ginen guztira. Mutil horietako bat euskalduna zen, bizkaitarra.

-Beste txapelketarik ba al duzu gutxian?

Hogeitaz astetara edo, Europa mailako txapelketan hartu behar dugu parte. Orain txapelketa horretarako ari gara prestatzen, eta Gabonetan ez dudanez ezertxo ere egin, gogorra da berriro ere entrenatzen hastea.



Lurdes duela urte batzuetako txapelketa batean.



Aloña Ipintza

HERRI LANAK

// Hamaika ikusteko jaiok gara" esaldia lehenengo aldiz esan zuenak ez daki ez zenbateraino asmatu zuen.

Nik muzin egiten nion orain arte, baina azken aste honetan ikusitakoaren ondoren, Einstein eta gainontzeko horiek baino jakintsuagoa zela pentsatzen hasita nago.

Eguberri hauetan nire etxe aurrean eta atzekaldean konponketa lanak egiten aritu dira. Batean zein bestean bi gizonetako aritu dira: lehenak espaloiak egokitu behar zituen elbarrientzako, hiru koska besterik ez, bigarrenak barandila bat margotu, erdoilduta baitzegoen. Langile horietako inork ezin esango du gorriak ikusi zituenik zeregin horietan, gutxienez bost egun behar izan baituztzen lanak burutzeko.

Alajaina, Egiptoko piramideak egiten aritu zirenek abiadura eta denbora berbera behar izan balute beraien lanak bukatzeko, ez genuke ondare historiko horien arrastorik izango gaur egun.

Egun lanpostu bat lortzeko ikasketa maila bat, esperimentzia, curriculum borobil bat, oposizio batzuk gainditzea..., gauza asko eskatzen dira, baino lanerako gogoia ez ote da baldintzarik garrantzitsuena?

Langabezia egunotako arazorik gogorrena da eta ez jendea alferra delako, lanerako gogoia duen gazte eta zahar ugari baitago. Beharbada askok eta askok ez dute graduorik atera eta aterako, baino langile finak izan daitezke.

Beraz, lanerako gogoia duenak lor dezala lanpostua eta besteak etxean gelditu daitezela.

Asko entrenatzen al duzue? Besterik egiten al duzue?

Laupabost orduz entrenatzen dugu egunero, eta orain, kilo gutxiarekin baina altxaera bakoitza askotan errepikatuz ari naiz entrenatzen, oinarria hartzeko. Hori egin eta gero, altxa beharrek kiloak gehitzen joango naiz piskanaka-piskanaka. Horrezaz gain, selektibitatea ateratzeko ikasten ari naiz, iaz UBLa gainditu arren selektibitatea ezin izan bainuen egin. Masaia ikastaro bat ere egingo dut.

2.000. urtean Sidney-en ikusiko al zaitugu?

Sidney-ko Joko Olinpikoak izango dira emakumezkoek Olinpiadetan lehenengo aldiz lehiatuko diren jokoak. Hala ere, bertan parte hartzeko 1999. urtean jokatu diren halterofiliako mundialetan lehenengo hamabosgarrenen artean gelditu behar da. Gure ekipokoez, batzuek beste, hogeitaz inguru edukiko ditugu 2.000. urtean, gazteak beraz. Ondorioz, oso itxaronpetsu gaude.

ZUBELDIA SENIDEAK ARRAINAK ETA MARISKOAK SALTZEN

LUIS MARI ZUBELDIA ASTEASUARRA BERE ARREBA ETA KOINATA DUELA HAMAR URTE HASI ZIREN ARRAINAK SALTZEN. TOLOSA-KO ARRANDEGI BAT EROSI, PORTUTIK ZUZENEAN ARRAINAK HARTU ETA JATETXE NAHI HERRITARREI SALTZEN ZIREN ARRAINAK. BEZERO ASKO ZIREN DENEI ONGI ZERBITZATZEKO; AZKENEAN, ARRAINAK JATETXEEI BAKARRIK SALTZEA ERABAKI ZUTEN.



Luis Mari eta bere arreba arraina deskargatzen.

Bezeroak hala eskatuta, arrain haztegi txiki batzuk jartzeko asmoan gabiltza. Gainerakoan, orain arte bezala jarraituko dugu lanean. Ditugun bezeroak ahalik eta ondoen zerbitzatzeko saiatuko gara.

Konpetentzia handia al dago?

Cabonetan, adibidez, arrainaren prezioa bikoiztu egiten da, eta hori ez da inorentzat onuragarri. Horrez gain, itsasoko uretan arraina gutxitzen ari da eta arraindegiak berriaz, asko daude. Beraz konpetentzia handia dago

merkatu honetan. Gure kasuan, Zizurkilen eta Asteasun, ez dago arraindegirik, Billabonan aldiz bai.

pea, bisigua, rodaballoa eta txitxarroa dira. Bezperan jatetxeei deitu eta beren eskaria jaso ondoren, hurrengo egunean arraina garbitu, prestatu eta arratsaldez, banaketa egiten dugu. Gure bezero nagusiak jatetxeak dira. Herritarrak arrain eske etorri gero zerbitzatzeko diegu, baina jatetxeekin egiten dugu lana batik bat.

GURE BEZERO NAGUSIENAK JATETXEAK DIRA"

Nola antolatu duzue pabeloia?

Lanerako leku apropos baten faltan geuden eta horregatik hartu dugu pabeloia hau. Bertan arraina garbitzeko mahai zabalak, izotza egiteko makina, hotzkailua eta gainerako materiala sartzeko adina leku dagoenez, lana hobeto egin dezakegu. Horrez gain, oraindik lekua dago eta bestelako asmoak ere baditugu.

Zein dira etorkizunerako asmo horiek?



Zertan datza zuen lanak?

Hasieran arraindegi batean egiten genuen lan baina duela sei hilabete inguru arraindegi utzi eta pabeloia bat ireki dugu arreba eta biok Zizurkilgo Ernio bideko poligonoa industrialcan. Arraina portutik erosi eta jatetxetara eraman ohi dugu. Gu ez gara egunero portura joaten, telefono bidez erosten dugu askotan arraina. Bezeroak nahi badu arraina garbituta saltzen diegu.

Zein arrain saltzen duzue eta nori?

Arrain mota asko saltzen dugu baina garrantzitsuenak legatza, mediana, ra-

H **HERCULES**
Aseguruak ARGENTARIA
Anaita Kontajareta
 Bulandegi bidea. 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL



BORDA
Jatetxea
 Sorabilla auzoa z/g 20140 ANDOAIN
 ☎ 59 28 60 Faxe: 59 36 91

BIGARREN AUKERA

GABONETAN BADA LOTERIAKO MILIOIAK NORBERARI SUERTATATZEA AMESTEN DUENIK; IZAN ERE, HORREK, HAINBESTE AMESTUTAKO KOTXEA, ETXEA, BIDAIA EDOTA DITUEN ZORRAK ORDAINTZEKO BALIOKO LUKE. HORI GUZTIA, ORDEA, ALFERRIKAKO DA OSASUNIK EZ BADA. GAUZAK HORRELA, PERTSONA BATEK GAIXOTZEN DEN ARTE EZ DAKI ZEIN LOTERIA DUEN. OSASUNTSU GAUDENEAN EZ GARA OHARTZEN BAINA BADIRA BESTE BATZUK GU BAINO OKERRAGO DAUDENAK. HORIEN ARTEAN, BIHOTZA EDO TA GILTZURRUNEKO ARAZOAK DITUZTEN PERTSONAK DITUGU, BIZI AHAL IZATEKO BESTE PERTSONA BATEN ORGANOAK BEHAR DITUZTENAK. TRASPLANTEAK ETA DONAZIOAK BERAZ ELKAR HARREMANEAN DAUDE; DONAZIORIK EZ BADA EGITEN EZIN BAITA TRASPLANTERIK EGIN.



ALCER giltzurruneko gaixoen elkartea da.

BIHOTZKO TRASPLANTEA

Jose Antonio Mendizabal andoaindarrak infarto bat izan zuen duela bi urte pasatxo. Tratamenduan hasi baina hobetzen ez zuela ikusi eta bost «bypass» ondooren bihotzeko trasplantea egin zioten Valdecillan (Santanderren). "Osasun arazo serioa duzunean buruak lan asko egiten du. Calduta sentitzen zara; ordurarteko bizimodua bapatean etenda ikusten duzu eta etorkizun beltz horren aurrean beldurtu egiten zara. Horregatik, momentu latz horietan senide eta profesionalen laguntzaren beharrean aurkitzen zara". Badira bi urte bihotzeko trasplantea egin ziotela eta egun oso ondo sentitzen dela aitortu digu. Nahiz eta garai bate-

ko parrandarik ezin egin eta janaria kontrolatu behar izan, beste zenbait aktibitateen bidez bizitza lasaia darama.

"GAITZA DIAGNOSTIKATZEN DEN MOMENTUATUA LATZA DA GAIXOARENTZAT"

"Pasiatu eta familiarekin disfrutatzea dira besteak beste, gehien atsegin dituzdan gauzak."

Gaitza diagnostikatzen den unea latza da gaixoarentzat. Mundua bukatu zaiela iruditzen zaie, horregatik lehenagotik ere esperientzia hori bizitu dutenekin harremanetan jartzea edota arazo horiek dituztenak laguntzeko sorturiko elkarteetara jotzea eta horien laguntza jasotzea ezinbestekoa da. Era horretan, bihotzeko arazoak dituztenek Atcore izeneko elkartea osatu dute. Gaixok eta beren familiak beharrezko duten laguntza ematea du helburu elkarte horrek. Trasplantearen

zain egon behar duten denbora horretan ebakuntza egunerarte bizirik egongo ote diren galde-tzen diote gaixoek behin eta berriz beren buruei. Eta beraz, ezinbestekoa da denbora horretan laguntza jasotzea.

ALCER GIPUZKOA

Gaixoak bizirik jarrai dezan eta trasplanteak burutu daitezten organo emaileak beharrezkoak dira. Lan horretan diardu Alcer Gipuzkoa elkarteak. Nahiz eta giltzurruneko gaixoen elkartea izan, pertsona baten organo eta ehunen donazioa posibilitatzen duen txartelen emaileak dira ere. Alcer Gipuzkoa elkarteko bazkide den Xabier Irazustak donazioen beharraz kontzientziaztea garrantzitsua dela azpimarratu du. "Egun, ohizko praktika da organoak eta ehunak transplantatzea. Gainera, hiltzen garenean gure or-

ganoek gaixo dauden beste pertsonentzat balio dezakete, gaixoak salba ditzakezu". Alcer taldearen lan garrantzitsuena gaixoari eta bere familiari laguntza psikologikoa eta soziala ematean datza. 1.977. urtean talde gisa legalizatu zenetik lanean dihardu talde horrek eta jadanik ia 500 lagun dira Alcer Gipuzkoa elkarteko partaideak; gehienak trasplanta- tuak edota dialisia egiten ari direnak.

Alcerren lan esparrua giltzurruneko gaixoei laguntza ematean eta organo emaile izatearen garrantzia azpimarratzen datza. Organo emaile izateko ordea jendea sentsibilizatu beharra dago. Urtero adibidez, giltzurruneko arazoak dituzten 55 gaixo sartzen dira elkartera. Egun, trasplantea egiteko 3 urte itxaroten dute dialisia egiten, baina batzuetan denbora laburragoan ere egiten daturplantea.

ORGANO EMAILEAK

Gipuzkoan 43.000 pertsona dira organo eta ehun emaileak. Estatu mailan tasa altuenetakoa duen herrialdea da Euskal Herria. Hala ere, ez dira edonoren organoak ematen. Organo emailea izateko ezinbestekoa da heriotza ospitalean gertatzea. Hau da, burmuineko lesioa, odol-jarioa edota traumatismo baten- gatik ospitalera bizirik iri-



Jose Antonio Mendizabal

tsi eta ospitalean hiltzen den pertsonaren organoak ematen dira. Ordu batzuk lehenago pertsona osasuntsua zenaren organoak beraz. Kasu hori, ospitaletan hiltzen direnen %1 da, eta kopuru horren erdia baino ez da baliogarria, izan ere, zenbaitetan, organoak trasplanta- tu eta gorputz berriak ez baititu onartzen (errefusapena).

Organo emaile horietako bat Sara Gomez andoaindar gaztea dugu. Adin nagusia oraindik ez zuen

arren organo emailea egitea erabaki zuen. "Hiltzen garenean ez dugu gure organoen beharrik eta beraz, nire organoek gaixo dagoen bat salbatzeko balio badute zergatik ez dut horretan lagunduko bada?" Beldurrarengatik edota dena delakoarengatik organoak ematera auzartzen ez direnak errespetatzen ditu eta oraindik organo emaile kopurua baxua dela iruditzen zaio Sa-

" GARRANTZITSUENA FAMILIARI ORGANO EMAILEA ZARELA JAKINARAZTEA DA "

rari. "Organo emaile egiteko txartela bete nuenean nire etxekoek ere bete zuten. Organo emaile naizenaren ziurtagiri bakarra txartela hori da eta horregatik nirekin daramat beti. Zerbait gertatuko balitzaidake badakite organo emailea naizela eta beraz, ni hilez gero beste pertsona batentzat baliogarriak izan daitezke organo horiek".

Alcerreko partaide den Xabier Irazustak txartela norberarekin eramatea baino familiari organo emailea zarela esatea funtsezkoagoa dela dio. "Ezusteko heriotzen aurrean bada organoak ematearen aurka azaltzen diren familiak, eta hori errespetagarria da. Hala ere, hildakoak bere organoak ematearen aldeko erabakia hartu baldin bazuen, bere borondatea errespetatzeko familiak jakinaren gainean egon behar du. Familiaren ezezikorik ematen bada ez da organorik dohantzen, nahiz eta hildakoa organo donatzaile izan. Ez da inor behartzen baina garrantzitsua da erabaki horren aurrean jendea sentsibilizatzea". Gu hiltzen garenean gure organoek pertsona baten bizitza salba dezakete. Inor ez dago gaixotasun horietatik libre eta gaur niregatik egiten denaren antzera, bihar zuregatik egingo du beste norbaitek.

ANDOAIN

Gabonetarako etxera

Amaia Gomendio eta Arantxa Arzallus, atzerrian ikasten ari diren bi andoindar

**NANTESEN (FRAN-
TZIAN) ETA MILA-
NEN (ITALIAN) ARI
DIRA GOI MAILAKO
INGENIERITZA ETA
GEOLOGIA IKASTEN,
HURRENEZ HURREN,
AMAIA GOMENDIO
ETA ARANTXA AR-
ZALLUS GAZTEAK.

AURTEN BUKATZEN
DITUZTE BIEK IKAS-
KETAK, ETA ATZE-
RRIAN IGARO DITUZ-
TEN URTEAK ETA BI-
ZI IZAN DITUZTEN
GORABEHERAK KON-
TATUKO DIZKIGUTE
JARRAIAN. TURROIA
BEZALAXE, GABONE-
KIN BATERA ETORRI
DIRA BEREN ETXEE-
TARA BI GAZTE AN-
DOAINDARRAK.**



Zer dela eta atzerrira ikastera?

(Amaia Gomendio) Ni Arrasatera joan nintzen UBI bukatuta ingenieritza ikastera. Arrasateko kooperatibaren eskolan hasi nituen ikasketak, eta goi mailako ingenieritza egiteko atzerrira joateko aukera ematen du kooperatibak. Nik oinarritzko ingenieritza ekainean gainditu nuelako izan dut atzerrira ikastera joateko aukera. Baina Frantzira joatea ez nuen nik aukeratu, eskolak berak erabakitzen du norakoa.

(Arantxa Arzallus) Nik berriz, Leioako fakultatean ikasi dut azken lau urteotan. Azken ikasturtea kanpoan egitea pentsatu nuen, eta Erasmus programako dirulaguntzaren bitartez, Italira joatea erabaki nuen.

Zenbat denbora daramazue bertan? Zenbat gehiago geldituko zarete?

(A.A.)Ikasturte baterako joan naiz, beraz, lau hilabete eskas daramatzat Italian.

(A.G.)Hiru urte. Lehenengo Bordelen eta azken biak Nantesen. Aurtengoa da nire (bion) azken ikasturtea.

Zer moduz moldatu zarete bizkuntzarekin?

(A.G.)Ni atzerrira behar baino lehenago joan nintzen. Izan ere, oinarritzko ingenieritza amaitutakoan proiektu bat egin behar da urtebetean. Jendeak, normalean, proiektu hori egiten ari den urte berean, hurrengo urtean goi mailako ingenieritza egitera joan behar duen herraldoko hizkuntza ikasten du. Ni, ordea,

proiektua egitera joan nintzen Frantzira, Bordelera, hain zuzen. Beraz, frantsesa jakin gabe joan nintzen eta lehenbailehen ikasi behar izan nuen.

(A.A.)Nik banekien noiz eta nora joan behar nuen, eta beraz, italianoa ikasten aritu nintzen joan aurretik, baina ez gehiegi.

Kontatuzue ban nolako bizi-modua egiten duzuen.

(A.A.)Hemen egiten nuen gauza bera egiten dut gutxi gorabehera. Egunean, gehienez, bost orduko klaseak izaten ditugu, hemen bezalaxe. Klasera joatea da eguneroko eginbeharra.

(A.G.)Zortzi orduz klaseak izaten ditugu egune-



Arantza Arzallus

“IRAKASTEKO SISTEMA EZBERDINA DA, BAINA EZ DERRIGORREZ HOBEA”

ro, hizkuntza ikasteko klaseetara joateaz gain. Beraz, egun osoa eskolan igarotzen dugu. Asteko arratsalde batean kirola egiten dugu, eta asteburuetan berriz, lo, lo eta jan. Beno, inguruak ezagutzera eta turismo piska bat egitera ere joaten gara.

Lagunik egin al duzue? Erraza al da bertako bizimodura obitza?

(A.A.) Hasieran oso gogorra da. Ni, adibidez, Erasmus programaren bitartez Milango unibertsitate horretara joan naizen ikasle bakarretakoa naiz, eta beraz, hasiera batean asko kostatzen da bertara ohitzea eta lagunak egitea.

(A.G.) Nik berriz, askoz ere errazagoa izan dut.



Amala Gomendio

“PENA GEHIEN IKASLE IZATEARI UTZI ETA LANEAN HASTEAK EMATEN DU”

gustukoa dut. Bestalde, unibertsitatean bezain beste ikasten da unibertsitatetik kanpo, atzerriko herrialde batean zeure kabuz moldatzen ikasi behar baituzu.

Penik ematen al dizue datorren urtean, aurtengo uda-udazkenean, etxera bueltatu beharrak?

(A.A.) Niri ez hainbeste, ikasturte bat pasako dut soilik.

(A.G.) Niri izugarriko pena ematen dit. Hiru urte pasa ditut kanpoan ikasten eta ohitu naiz nire gisara bizitzera. Hango lagun eta ikaskekideekin harremana galtzeak pena handia ematen dit, baina pena gehien ikasle izateari utzi eta lanean hasteak ematen dit, sistema horretan sartzeak.

Izan ere, urtero joaten dira Arrasateko ikasleak Nanteseko eskolara ikastera, eta berriak joaten garenerako, bi ikasturterako dirulaguntza denez, aurreko urtean joandakoak bertan daude. Beraz, Arrasateko eskolan ikasi dugun lagun taldea batera ibiltzen gara. Bestalde, beste herrialdeetako lagunak egiteko aukera izan dut, italiakoak...

Lagunekin, bakarrik, erresidentzian..., non eta noekin bizi zarete?

(A.G.) Eskolako erresidentzian. Arrasateko eta beste herrialdeetako hainbat lagunekin batera.

(A.A.) Erresidentzian ere. Baina ni bizi naizen erresidentzia ez dago kanpus unibertsitario batean, aparte, erresidentzia kalean dago,

hau da, Milan hirian bertan, fakultatea bezalaxe.

Hobeto irakasten al dute atzerrian?

(A.G.) Gauza batzuk bai baina beste asko ez. Irakasteko sistema ezberdina da, baina ez derrigorrez hobea. Praktika gehiago egiten ditugu, baina teoria ere, alferrikako teoria, asko ematen dugu.

Zer gauza da Milan/Nantese-tik gehien gustatzen zaizuena? Zer hotatzen duzue faltan?

(A.A.) Faltan mendiak botatzen ditut, Milanen ez baitago mendirik. Gustatu berriz, ikasketen bitartez kanpora joan eta atzerria ezagutzeko dudak aukera.

(A.G.) Amak prestatzen dituen jakiak hotatzen ditut faltan. Baina bertan sentitzen den independentzia oso

EMBUTIDOS ORMAKI URDAITEGIA

TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923

ANDOAIN

Extrix Beltz

Taberna

Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

MIRARI

ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2

☎ 590162

ANDOAIN

“JULIAN LIZARDI MARTIRI ASTEASUARRA” LIBURUA KALEAN

Larramendi Bazkunaren laugarren saiakera liburua da

ASTEASUKO UDALAREN EKIMENEZ ETA LARRAMENDI BAZKUNAREN ZUZENDARITZAPEAN BURUTU DUTEN SAIAKERA LIBURUA DA “JULIAN LIZARDI MARTIRI ASTEASUARRA” LIBURUA. LAISTER XXI. MENDEAN BIZIKO GAREN EUSKALDUNOK XVIII. MENDEKO BIZIPENAK ETA GORABEHERAK EZAGUTZEKO ESKURA DUGUN LAN PAREGABEA DA SAIAKERA LIBURUA. GARAIKO ASTEASU, JULIAN LIZARDI JESUITA ASTEASUARRAREN BIZITZA, ETA GARAI HARTAN GARRANTZI HANDIKOA IZAN ZEN MISIOLARI FENOMENOAREN ZERGATIA ETA GORABEHERAK EMATEN DIRA EZAGUTZERA ARGAZKIZ LAGUNDURIKO 128 ORRIALDEETAN. ERA BEREAN, LIZARDIREN GORPUZKINAK EKARRI ZIRENEAN (1902AN) HERRIAN SORTU ZIREN ERREAKZIOAK BILTZEN DIRA LIBURUAN. IZAN ERE, GIPUZKOAN 1902. URTEAN EMAN ZEN GERTARRARIK AIPAGARRIENETAKO IZAN ZEN LIZARDIREN HERRIRATZEA.

Parare bat urte igaro dira Julian Lizardi asteasuarraren 300. urtemugaz geroztik. Asteasuko Udalak zerbait egin nahi zuen urtemuga ospatzeko eta Larramendi Bazkunarengana jo zuen. Eta Bazkunak, Euskal Herriko eta Gipuzkoako historian garrantzitsua izan zen garai eta fenomeno bat aztertzeke aukera ez zuen atzera bota: XVIII. mendea eta misiolarien fenomeno aztertzeke eta ezagutzera emateko aukera. Horren ondorioa da beraz “Julian Lizardi martiri asteasuarra” liburua.



LAU ATAL EZBERDIN

XVII-XVIII. mendeetako Asteasu nola izan zen azaltzen da liburuaren hasieran, Asteasuko giroa eta bizimodua nolakoa zen aztertzen du Leyre Arrieta historialariak liburuaren lehen zatian.

Jose Angel Achón Insausti historialari berriz, Julian Lizardiren irudi historikoa marraztu eta bere bizimoduaren berri ematen du aditzera liburuaren bigarren atalean. Beraz, Julian Lizardi jesuita eta misiolari egitea zerk eragin zuen, eta Paraguayko jesuiten erredukzio batean indiar txiriguarrek zergatik hil zuten azaltzen digu Achónek.

Liburuaren hirugarren atala ere Leyre Arrietak egin du. Lan horretan Julian Lizardiren gorpuzkinen aurkikuntzak (1735ean hil zuten eta 1902an ekarri ziren bere gorpuzkinak) herritarrengan sortu zuen erreakzioa eta zirrara irakur dezakegu. Garaiko egunkarietatik bildu du informazioa Arrietak, eta egunkari horietako testu batzuk aurkituko ditu irakurleak liburuan.

Azkenik, liburuaren azken zatia asteasuarra zen Luis Etcheberria Gipuzkoako diputatu ohiak mende honen hasieran idatzirik testua da. Berak idatzi bezala argitaratu dute Julain Lizardiren apologia egiten duen testua, garaiko euskararen.

JULIAN LIZARDI MARTIRIA

1695. urtean jaio zen Asteasun eta oso gazte egin zen jesuita Julian Lizardi. Hemen eta han ikasten aritu ondoren, Hego Ameriketara joan zen misiolari, bertako kristautzera. Paraguayko jesuiten erredukzio bateko ardura zela hil zuten Lizardi indiar txiriguarrek 1735. urtean, meza ematen ari zela. Tarijan (Boli-vian) lurperatu zuten. Orduan, Lozano jesuitak Lizardiren bizitzari buruzko biografia labur bat idatzi zuen. 1897. urtean Tarijara heldu zen apaiz ingeles batek aipaturiko biografia irakurri eta gero, Lizardiren gorpuzkinak aurkitu zituen. Tarijan berriro ere otoiak egiten hasi ziren Lizardi misiolarien omenez. Aipaturiko apaiz ingelesa berriz, hemengo agintariekin harremanetan jarri zen gorpuzkinak hona ekartzeko, nahiz Tarijako herritarrek ez zuten nahiz gorpuzkinak bertatik eramaterik. Baina misiolaria martiri izendatzeko gorpuzkinak edukitzea beharrezkoa zen, eta azkenean, beso bat han utzita eta gainerako gorpuzkinak hona ekarrita konpondu zuten auzia. Lizardiren gorpuzkinak Asteasuko elizan daude egun.

GURE HISTORIA EZAGUTZEN

Euskal Herrian oso normala eta garrantzi handikoa izan zen misioagintza aurreko gizaldietan, baita gaur ere. XVI-XVIII. mendeak erlijioaren menderik oparoenak izan ziren, eta horrek, noski, izan zuen eraginik gure herrian, eta ondorioz, gure historian. “Certaera horiek orainaren oinarri ere badirelako eta misiolarien fenomeno zer izan zen erakustegatik” argitaratu omen du liburua Bazkunak bere lehendakaria den Jon Unanueren esanetan, “herria bere historiaz jabeazteko”.

Xudurluze,


LARRAMENDI BAZKUNAREN BERRIEMAILE

Abenduaren 30ean aurkeztu zuten bazkideentzako aldizkaria, Bazkunaren 5. urtemuga ospatzearekin batera

Berri-Aiztondoko herriak biltzen dituen Manuel Larramendi Kultur Bazkunak azaroaren bostean bete zituen hosi urte. Baina data horretan Martin Ugalderen omengaldian burubelarri ari zirenez lanean, joan den hilaren 30a arte atzeratu zuten ospakizuna bazkuneko lagunek. Bazkideak eta herritar gehiago joan ziren Bazkunaren ibilerraren berri ematen duen *Xudurluze* aldizkariaren aurkezpena eta urtemuga ospatzeko tarta jatera Andoaingo Udaletxeko Batzarre Aretora.

Joxe Arruti asteasuarrak eginitako tarta gogoz jan zuten bertaratu ziren bazkideek. Bazkunaren 5. urtemuga, beraz, urtebeterre guztien antzera, kandelai putz egi-

nez eta tarta janez ospatu zuten. Hori baino lehenago, *Xudurluze* izeneko aldizkaria aurkeztu zuten Batzarre Aretoran. Bertan, bost urte hauetan Bazkunak egin duenaren berri ematen da kronologikoki. Horrezaz gain, aurrera



begira dituzten proiektuak eta egun eskuartean dituztenak zeintzuk diren azaltzen dute. Bazkideen zerrenda osoa, Bazkunaren diru sarrerak eta gastuak, eta Aiurri aldizkarian publizitatea txertatuz laguntza ematen duten komertzioak ere azaltzen dira *Xudurluzean*. Azkenik, bazkide berriak egiteko txartela ageri da. Aipatzekoa da azaroan Bazkunako ohorezko lehendakari izendatu zuten Martin Ugalderen agurrak ematen diola hasiera zortzi orriko berripaperari. *Xudurluzea* aurkezteko eta bazkide gehiago egiteko bilerak egingo dituzte gutxian Billabona eta Zizurkilen.

➔ HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDA- LI GURE EGOTZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2.000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: Herria:


Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Lanbidea: Jaiotze data:

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko[☐]: Laneko[☐]:

Hilerri zaharra. 1900



Egunotan hilerria konpontzeko lanak egiten ari direla eta, duela ehun urte inguruko hilerriaren argazkia argitaratu dugu. Ez daukagu argazki honi buruzko informazio gehiago, oso zaharra baita. Argazki hau ikusgai izango da, beste askoren arten, herri ostaluan. Beraz, ikus ezazue garaiko Adunako txoko esanguratsu horren argazki polit hau. Denborak gauzak aldatzen dituela ez da alferrik esaten.



ALBA

aseguroak


Pío Baroja, z/g behea. 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona

- Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

**Hilero auto baten aseguru-
rua zozketatzen dugu!**

Beterriko Liburua

1997



BALEEN BERBAROA

Edorta Jimenez
Argitaletxea: Alberdania
Generoa: gazte literatura
Prezioa: 1.900 pta.
Orrialdeak: 132 orri.

Edorta Jimenez mundakar idazlearen hirugarren elaberria, *Baleen berbaroa*, XVI. mendeko Euskal Herriko itsas giroan kokatutako thriller historikoa da. Horrela zioen, behintzat, berak aurkezpen egunean: "ikerketa kriminal baten historia, eta itsas girokoa, da nobela hau". Mundatxa herri arrantzalean gertatzen da, XVI. mendean. Han bizi da Sebastian Zubileta gaztea. Herri horretan jaio zen 1571. urtean, Lepantoko borroka gertatu zen urtean eta Legazpi Filipinak aurreneko aldiz zapaldu zituen urtean. Gazte horren historia hartu du euskaldunen itsas mundu hori erakusteko ardatz.


Garai hartan bake-bakean bizi ziren euskaldunak, baina baleak gure kostaldera agertu zirenean bake hori hautsi egiten dute eta euskaldunak haiei arpoika eraso zieten. Garai horretako gertakizunak ditu. Gainera, kofradiako kontuak, Inkisizioaren atzapar luzeak eta gogoz kontra Ingalaterrako Jomadarako Armadan erroldatu beharrean diren gazteen gorabeherak ere kontatzen ditu eta, horrek guztiak, amodioa tarteko, eleberririk irakurterraz eta atsegina osatzen du.

Dokumentazio historikoaz gain, dokumentazio linguistiko handia ere egin du Jimenezek eleberririk horretan, XVI. mendeko hitzak, moldeak eta abarrak aukeratu ahal izateko. Hizkuntzalaritzak eta historiak, beraz, bat egiten dute literaturarekin mundakarraren eleberririk berrian. Lehenik ere askotan erakutsi du idazle honek ederki dakiela itsasoko kontuak orritatzen eta, oraingoan ere, itsasoarekiko lilura kutsatzen dio irakurleari, literatura gogoraraziz eta eleberririk horretarako bitarteko bihurtuz.

Luzaroan umotu eta ondutako emaitza dela esan zuen aurkezpenegileak. Hainbat urtetan zehar ordenadorean itsas gorabehererik buruz pilatutako informazioaz baliatu da Jimenez istorio hai idatzi duenean. "Abenturazko liburua da, arin irakurtzen dena, eta espero dut, behingoz, irakurleko zabal batengana iristea", esan zuen Mundakako idazleak aurkezpenean. Tetralogia baten aurreneko partea da liburu hau eta jadanik pentsatuta dauka beste hiru liburuen nondik norakoa. Hala ere, eleberririk amaituta eta horobilduta dago, Sebastian Zubileta pertsonaiak jarraipena izango badu ere. Izan ere, liburuak bere gaztaroa bakarrik jasotzen du eta badu egileak pertsonaia berarekin segitzeko asmoa.

Badu eleberririk honek, era berean, bizkaiera kutsua, horrela nahi izan duelako egileak. Hala ere, amore eman zuela ere aitortu zuen, "ahalik eta euskaldun gehienek irakurtzea baitzen nire helburua".

Itsas giroan murgiltzeko liburu aproposa eta egokia.



Aurrirren irakurleek asmatu beharreko txoko berria, argazkian ageri den bezala, erlijioarekin loturikoa da. Elizkizunetan parte hartu edota beste herrietako ermitak bisitatzea gustuko duenarentzat ez da zaila izango gure txokoa asmatzea. Saria bikaina da oraingoan ere: **Andoaingo Kiroldegiko Allurralde kafetegiak sei pertsonentzako merienda** eskaini digu oparizat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia. 20.140 Andoain. Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko. **ZORTE ON!**

ALLURRALDE Kiroldegia
Tfnoa: 300 103
ALLURRALDE



KAFETEGIA

- Gosari bereziak
- Pintxoak
- Zorionetarako meriendak
- Kafea hartzeko girorik onena

ORDUTEGIA

08:00-12:45

15:00-24:45

ERAKUSKETA

ANDOAIN

Urtarrilak 16-otsailak 1: Marta Cardenasen marrazkiak ikusgai. Ordutegia: astegunetan eta larunbatetan 10:30etatik 12:30etara eta 18:00etatik 20:30etara. Igande eta jai egunetan 11:30etatik 13:30etara.

MUSIKA

ANDOAIN

Urtarrilak 25: Oskorri eta Kukubiltxoren "Marijane Kanta zan" obra. Allurralde kiroldegian arratsafdeko 18:00etan.

HITZALDIA

ANDOAIN

Urtarrilak 27: "Euroa, Europarako moneta bat". Urigain Kultura Etxean arratsaldeko 19:30etan.

AIZTONDO

Aiztondo bailarako eskolako umeekin lantzen ari diren osasunezko prebentzio programarekin batera, gurasoen-tzat hitzaldi sorta antolatu da urtariletik ekainera bitartean. Beatriz Ezeiza eta Itziar Casado izango dira hizlariak eta hitzaldiak elebidunak izango dira. Lehenengo hitzaldiaren ondoren, bigarren hitzaldia otsailaren 18an izango da Alkizako Kultur Etxean.

IRTEERAK

ANDOAIN

Urtarrilak 18: Andoaingo Euskalduna Mendigoizale taldeak antolatuta Ireber mendira irteera.

HAURREN IRTEERAK

ANDOAIN

Urtarrilak 18: Andoaingo Euskalduna Mendigoizale taldeak antolatuta Aizkorrikogaine mendira irteera.

IKASTAROAK

ZIZURKIL, ADUNA ETA LARRAUL

Baseriko ogia: (iraupena:21 ordu); Gaztagintza: (12 ordu); Esnekia: (6 ordu)
Ikastaro bakoitzaren kostua 1.500 pezetatakoa da. Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu 693930 telefono zenbakira (Ainhoa).

ASTEASU

Informatikaren *bastapenei buruzko* ikastaroa, Windows 95 eta Microsoft Word 97 landuko dira. Sei hilabeteko ikastaroa da eta Asteasun bertan emango dira klaseak. 18.000 pezeta balio du ikastaro osoak eta Udalak subentzionatua dago. Izenematea urtarrilaren 16etik aurrera. Izena emateko deitu 693930 telefonora.

OHARRA

ZIZURKIL

Zizurkilgo liburutegiak azken liburu eta nobedadeen gida liburua kaleratuko du urtarrilean. Bertan, haur, gazte eta helduentzako liburu berrien inguruko informazioa agertuko da.

Bestalde, herritarrentzako interesgarriak izan daitezkeen zenbait libururen kontsulta egiteko, gidaliburua etxera eramanez alhal izango da. Doan banatuko da.

ZINEMA

BILLABONA

Urtarrilaren 16tik 30ra bitartean

- 7 años en el Tibet
- The Game
- L. A. Confidencial

KOMIKIA




Larunbat eta jai egunetan eguerdian irekita!

SARASOLA SAGARDOTEGIA

Zumalikardi baserria
ANOETA
☎ 65 26 22

Sagardotegia
ASTEASU
☎ 69 02 83

**1970. urtean ireki genuen
Sagardo garaian zabalik
Sagardoa geuk egiten dugu
200 pertsonentzako lekua (aparkarlekua)
Berezitasunak: Makailu frijitua, txuletak eta
etxean egindako menbriloa**



ABURUZA SAGARDOTEGIA

☎ 69 24 52 - 69 21 53 ADUNA

**Orain dela 16 urte jarri genuen martxan.
Sagardoa bertan egiten dugu. Urtarriletik irailera bitartean
irekita. 200 pertsonentzako lekua (aparkalekua).
Berezitasunak: Makailu frijitua eta txuleta.**


TXERTOTA



- 200 pertsonentzako lekua (aparkalekua).
- Sagardoa etxean egiten da.
- Sagardo garaian sagardotegi gisa irekitzen dugu eta urtean zehar jatetxe moduan.
- Berezitasunak: Txuletak eta kokotxak.

ALBIZU

Kirol
jantziak
eta oinetakoak
Aurtengo
negurako
prakak, forro
polarrak, txan-
dalak, Gore-Tex
etab.



Nike
Reebok
Asics
Adidas
Astore
Stratos
John Smith

KIROLAK



MERKEALDIA!!

Kale Nagusia, 2 - 20150 BILLABONA - Tel. (943) 69 31 31
VISA eta KUTXA

NEGU HONETAN ABANTAIL HANDI BAT ESKEINTZEN DIZUGU



KIDEGAS-ek zerbitzu hobereana eskeintzen dizu, kualifikatutako profesionalekin, preziorik onenean.

Eta beste abantail handiaz

98-02-28 baino lehen onartzen baduzu gasa edo berogintza instalatzea, instalazioan deskontu batzuk eskeintzen dizkizugu:

GASA instalazioaren deskontua

15.000 pta.

BEROGINTZA instalazioaren deskontua

25.000 pta.

KONPROMEZURIK GABEKO

AURREKONTUA



Kidegas, S.L.

GASA ETA BEROGINTZA
GAS Y CALEFACCION



¡DEITU! Etzaizu ezer kostatuko

900 121 775

BEZEROEN ARRETARAKO DOHAINIKO DEIA